


NOLA EGIN AURRE LAN INGURUNEAN PANDEMIAK ERAGINDAKO AKIDURARI

ENPRESAK



Instituto de Salud
Pública y Laboral
de Navarra



Nafarroako Osasun
Publikoaren eta Lan
Osasunaren Institutua



SARS-CoV-2-k eragindako pandemiak urtebete baino gehiago egin du gurekin. Tarte honetan hauteman da herritarrek zailtasunak dituztela birusaren kontra hartutako prebentzio-eta babes-neurriak betetzeko izan behar den alerta-maila etengabekoa gordetzeko. Egoera hori agerian gelditzen da bizitzaren esparru guztietan, baita lanekoan ere. Jendea oso nekatua dago; izan ere, jendeak, bereziki, egoera normalizatu batera itzuli nahi du.

Adituek diotenez, osasun-krisi publiko luzeari emandako erantzun naturala da, espero izatekoa, bereziki, COVID-19ak eragindako pandemiaren larritasunak eta mailak eskatu baitute neurri inbaditzaileak hartzea eta horrek eguneroko bizitzan ezagutu gabeko inpaktua izan du.

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME – 2020¹) egoera honi "**akidura pandemikoa**" izena eman dio, eta halaxe definitu du: "**Gomendatutako babes-jokabideak segitzeko desmotibazioa, denboran pixkana-pixkanaka agertu ohi dena eta, batetik, askotariko emozioek, esperientziek eta pertzepzioek eta, bestetik, testuinguru sozial, kultural, estruktural eta legegileak eragindakoa dena**".

OMEren planteamenduen arabera, gomendatzen da zenbait jarduketa egitea, enpresetako langileek izan dezaketen desmotibazioari eta nekeari aurre egiteko eta, hala, hartutako prebentzio-jokabideek bere horretan segituko dutela bermatzeko.

Gomendatzen da azterketa egitea eta hartan parte hartzea langileek, ikusteko eraginkorrak diren edo zenbateraino bete diren COVID 19ari aurre egiteko hartu diren neurriak.

Helburua da neurriak ezartzeko balizko arazoak eta haien zergatiak identifikatzea, arazo horiek arintzeko neurri zuzentzaileak eta, aldi berean, jarduketa-lehentasunak ezartzeko.

INTERESEKO INFORMAZIOA, JARDUEREN ETA SEKTOREEN ARABERA

https://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Salud/Organigrama/Estructura+Organica/Instituto+Navarro+de+Salud+Laboral/Publicaciones/Salud+y+sociedad/Coronavirus/Informacion+por+actividades.htm?NRMODE=Published

¹ Eskuragarri hemen: <https://apps.who.int/iris/bitstream/handle/10665/337574/WHO-EURO-2020-1573-41324-56242-eng.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

BERRIKUSI EDO EGUNERATZEKO NEURRI NAGUSIAK

SARTZEKO ETA ATERATZEKO ORDUTEGIAK ETA/EDO TXANDAK	Berrantolaketa/malgutzea.
ESPAZIOAREN BANAKETA	Eremu berriak berrantolatzea/egokitzea aldageletarako, komunetarako, atsedenguneetarako, jantokietarako eta abarretarako.
LAN ETA/EDO ZEREGINETARAKO PROZEDURAK	Berrantolatzea/birbanatzea, egoera berriari egokitzeko eta lan-kargak orekatzeko xedez.
PRESTAKUNTZA ETA INFORMAZIOA	"Laneko modu" berriei buruz.
TELELANA	Telelana sustatzea ezar daitekeen postuetan (baliabide material, tekniko eta prestakuntzakoez hornitzea).
FAMILIA ETA LANA BATERAGARRI EGITEKO NEURRIAK	Familia eta lana bateragarri egiteko formula berriak berrikustea/ezartzea, gerta daitezkeen konfinamendu-egoeren aurrean (familiako adingabeekin kontaktuan egotea edo bestelako egoerak).
MASKARAK ETA GEL HIDROALKOHOLIKOAK	Denek doan hartzeko modukoak izatea. Entregatzeko eta eskatzeko prozedurak.
AIREZTAPENA	Espazioak aireztatzeko eta airea berritzeko arauak ezartzea/berrikustea.
GARBIKETA	Instalazioetako garbiketaren, erabili beharreko produktuen eta desinfektatu beharreko eremu eta elementuetako lehentasunen prozedurak berrikustea.
LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA	Langileen informazio-beharrak eta ongizate emozionalekoak bere egiten dituen sistema ezartzea pandemiaren garaian ezinbestekoak izan diren sektoreetan (osasungintzan, esparru soziosanitarioan, merkataritzan, garbiketan, garraioan, hileta-zerbitzuetan...), Prebentzio Zerbitzuarekin, Mutuarekin eta beste entitate batzuekin koordinatuta. Balego, artatutako kasu kopurua, gogobetetasun-maila eta abar aztertzea.
KOMUNIKAZIO ESTRATEGIA	Komunikazio-bideak, ikusmoldea, hizkuntza, grafia eta abar berrikustea.

KOMUNIKAZIO ESTRATEGIKORAKO GOMENDIOAK

Gogora ekarri behar da COVID-19ak ez duela aitzakia izan behar ez betetzeko atsedendiei, lanaldiei eta laneko eta familiako eginkizunak batera egiteko legezko araudia.

- **Ohiko gomendioak gogoratzea ikus-entzunezko material erakargarri eta eguneratuen bitartez**, hori guztia eskura dauden azken ebidentzia zientifikoekin bat etorriz eta lantokian izan daitezkeen agertokiak kontuan hartuz.
 - **Beste gomendio batzuk gehitzea, beharrezkoa bada.**
 - Langileei ahalik eta ongien azaltzea **zer egin daitekeen eta nola egin behar den**, jadanik ezarritako errutinetan espero diren jokabideak barne (adibide zehatzak emanen dira).
 - **Enpatia** eta emozioak **erabili**, "egin ezazu nirekin", "laguniezaguzu" moduko esaldiak erabili, mezu inklusiboak, positiboak eta kemena ematekoak hautatuz.
 - Langile guztiak pandemia kontrolatzeko egiten ari diren **ahalegina eta lana** bistaratzeko, eta salbuespeneko egoera izanagatik ere lortu diren aurrerapenak eta xedeak erakusteko.
 - Antolakundeko kideek dituzten askotariko behar linguistiko, ulermeneko eta eskuragarritasunekoei arreta jartzea.
- https://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Salud/Organigrama/Estructura+Organica/Instituto+Navarro+de+Salud+Laboral/Publicaciones/Salud+y+sociedad/Coronavirus/Material+formacion.htm?NRMODE=Published
- Irudi grafikoetan gizonak eta emakumeak eta dibertsitate soziala egoki irudikatzea.
 - **Lantokietan eskuragarri dauden neurri eta baliabideak hobeki bistaratzeko**; neurri eta baliabide horiekin hobeki egokituko dira eman diren gomendioak (garbiketa-puntuak, segurtasun-tarteak seinaleztatzea, edukierak mugatzea, etab).
 - Material informatibo fisikoak **leku estrategikoetan** banatzea, hala nola aldageletan, fitxatzeko tokietan, atsedeen-guneetan eta abarretan.

**Ez da zorte kontua.
Lan baldintza onek COVID-19a kutsatzea eragozten dute.**

Denon konpromisoarekin, lortuko dugu.

Lan Osasunaren Zerbitzua
Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua
848 428 948
ispln.sprl@navarra.es



NAFARROAKO OSASUN PUBLIKOAREN ETA LAN OSASUNAREN INSTITUTUA (NOPLOI)

Landabengo industrialdea - E kalea- 31012 Pamplona -
Tel.: 848 42 34 40/ ssl.ispln@navarra.es
ISPLN/NOPLOI - riesgoslaboralesnavarra.es